

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatu Kontseiluaren 41/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, konturako diru sarrera eta atxikipen mota jakin batzuk aldatzen dituena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan, erregimen arrunteko araudira egokitze aldera

Uztailaren 10eko 9/2015 Errege Lege Dekretuak besteak beste onartzen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren alorrean aplikagarri diren zenbait atxikipen eta konturako sarrera tasa aldatzea.

Ekonomia Itunak, berriz, xedatzen du jarduera ekonomikoen, higigarrien kapitalaren eta zenbait sariren ondorio diren etekinengatiko atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, lurralde erkiderako xedatutako tasa berak aplikatuko direla.

Horiek horrela, foru dekretu honen helburu da Arabako zerga sistema aldatzea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren alorrean lurralde erkiderako xedatutako atxikipen eta konturako sarrera tasa berriak jasotzeko. Tasa horiek, Ekonomia Itunak xedatutakoarekin bat etorriz, berak izango dira zerga araudi bietan.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Azterturik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. PFEZaren araudia aldatzea.

Hona hemen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan, PFEZaren araudia onartzen duenean, egiten diren aldaketak:

Bat. 92. artikulua 1. paragrafoa aldatu da eta honela geratu da (aldaketak 2015eko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“1. Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioak direnean, ehuneko 15eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

Hala ere, zergadunak jarduera profesionala hasten badu, atxikipen tasa ehuneko 7 izango da jarduera hasten den zerga ekitaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduera hasi aurreko urtean ez badu inolako jarduera profesionalik egin.

Honen aurreko paragrafoan ezarri den atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek etekinen ordaintzaileari jakinaraziko diote inguruabar hori gertatu dela eta ordaintzaileak era egokian sinatuta egongo den jakinarazpena gordeko du.

Ehuneko 7ko atxikipen tasa aplikatuko zaie honako hauei ordaindutako etekinei:

- Udaletako zerga biltzaileei.
- Aseguruen bitartekariei, kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen badituzte.
- Estatuaren Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen ordezkari komertzialei.”

Bi. Bosgarren xedapen gehigarriaren a), c) eta e) letrak eduki gabetu egiten dira.

Hiru. Seigarren xedapen gehigarria honela geratu da:

“Seigarren xedapen gehigarria. Atxikipen edo konturako sarrera tasa, 2015ean.

2015eko urtarrilaren 1a eta 2015eko abenduaren 31 bitartean, bi horiek barne, atxikipen eta konturako sarrera tasa hauek aplikatuko dira:

a. Ehuneko 19 izango da uztailaren 12a baino lehen ordaindutako etekinei aplikagarri den araudi honen 92.1.1 artikuluan aipatutako atxikipen portzentajea. Dena den, portzentaje hori ehuneko 15 izango da honako hiru baldintza hauek betetzen direnean: jarduera horien etekin osoen bolumena, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko ekitaldiari dagokiona, 15.000 euro baino gutxiago bada, zergadunak ekitaldi horretan ekonomia jardueretatik eta lanetik eskuratutako etekin osoen baturaren ehunekoa 75 baino gehiago bada eta zergadunak etekinen ordaintzaileari jakinarazi badio inguruabar horiek ematen direla. Horrelakoetan, ordaintzailea behartuta dago jakinarazpen sinatu hori gordetzera. Ehuneko 15 izango da egun horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei aplikagarri zaien atxikipen portzentajea.

b. Ehuneko 9 izango da uztailaren 12a baino lehen ordaindutako etekinei aplikagarri den atxikipen ehunekoa, araudi honen 92.1.2 eta 92.1.4 artikuluan araututakoa, foru dekretu hone-tan xedatutakoarekin bat etorriz. Ehuneko 7 izango da egun horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei aplikagarri zaien atxikipen portzentajea.

c. Ehuneko 20 izango da 87, 96. eta 98.2 artikuluetan xedatutako atxikipenen portzentajea, baldin eta atxikitze beharra uztailaren 12a baino lehen sortu bada. Ehuneko 19,5 izango da atxikipen portzentajea, baldin eta atxikitze beharra uztailaren 12a eta gero sortu bada.”

Bigarrena. Sozietateen gaineko zergaren araudia aldatzea.

Abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuari, sozietateen gaineko zergaren araudia onartzen duenari, xedapen gehigarri berri bat gehitzen zaio, hamaikagarrena. Hona hemen horrek izango duen edukia:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Atxikipenen edo konturako sarreraren portzentaje orokorra, 2015ean aplikagarria.

2015eko urtarrilaren 1a eta 2015eko uztailaren 11 bitartean, ehuneko 20 izango da araudi honen 56.a artikuluan aipatzen den atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoa. Ehuneko hori 19,5 izango da 2015eko uztailaren 12a eta 2015eko abenduaren 31 bitartean”

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da foru dekretu honek araututakoaren aurka doan xedapen oro.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra. Horrek ez du eragozten, ordea, zenbait artikulutan xedatutakoaren eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 21a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasuneko zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTINEZ ALONSO